

# EUROPAR HIZKUNTZA POLITIKA BATEN BEHARRAZ

EUROPAKO PARLAMENTUAK HARTURIKO ERABAKIAK  
DESAGERTZEKO ARRISKUA DUTEN EUROPAR HIZKUNTZEI  
ETA HIZKUNTZA ANIZTASUNARI EGITEN DIEN EKARPENA ETA  
IREKITZEN DITUEN AUKERAK



**PATXI BAZTARRIKA**

EUSKO JAURLARITZAKO HIZKUNTZA  
POLITIKARAKO SAILBURUORDEA

Behar-beharrezkoa da diskurtso berri bat eraikitzea Europan. Diskurtso bateratua eta eraginkorra, hizkuntza aniztasunaren aurrean maizegi entzuten ditugun sasi-liberalismoak gainditzeko eta Europaren aniztasunarekiko konpromiso aktiboa hauspotzeko baliagarria izango dena

## ESKER ONEZ, AITORMENA

Europako Parlamentuak 2013ko irailaren 11n Europako hizkuntza aniztasuna dela-eta onartu zuen ebazpenaren gainean hausnarketa egiteko helburuarekin mintegia antolatu zuten Sabino Arana Fundazioak eta Euskaltzaindiak elkarren eskutik Bilbon, 2014ko otsailean. Mintegi hartan egin nuen mintzaldia oinarritzat hartuta moldaturiko artikulua da hau. Derrigorrezkoa, beraz, ezer baino lehen eskerrak ematea Sabino Arana Fundazioari eta Euskaltzaindiari jardunaldian parte hartzeko egindako gonbidapenagatik, eta *Hermes* aldizkariari tarte hau eskaini izanagatik.

Baditut gehiago ere eskertu nahi ditudanak. Lehenik eta behin, neure eta Eusko Jaurlaritzaren aitormena Europako Parlamentuari; François Alfonsi ponente duela, joan zen irailaren 11n Ebazpen garrantzitsua onartu baitzuen eta, zalantzarik gabe, Ebazpen hori zoru sendoa izango dugu etorkizunean.

Eusko Jaurlaritzak bere ekarpenak egin zituen aipatu Ebazpena Europarlamentuan aztergai zen garaian. Alde batetik, hasieratik bukaeraraino parte hartzaile aktiboa izan zen Izaskun Bilbaok eta bere alderdi politikoak, EAJ-k, hala eskatuta; beraz, eskerrak eman nahi dizkiet espresuki Izaskun Bilbaori eta bere taldearen zuzendaritzari, bai aukera hori eman zigutelako eta bai gure ekarpenak kontuan hartu zituztelako. Beste alde batetik, zuzenean parte hartu genuen NPLD hizkuntza aniztasuna sustatzeko europar sareak Ebazpenerako egindako ekarpenetan ere; NPLDren Zuzendaritzako kide baita Eusko Jaurlaritza, sortu zen unetik beretik. Horregatik

guztiagatik eta, jakina, edukiagatik, bere egiten du Eusko Jaurlaritzak Europako Parlamentuaren iraileko Ebazpena.

## EUROPARLAMENTUAREN EBAZPENAREN GARRANTZIA DISKURTSO BERRI BATERANTZ

Hor dugu onarturik Ebazpen egoki eta garrantzitsua. Eta orain zer? Zer bide jarraitu Ebazpen hori eraginkorra izan dadin? Hori da galdera, hori da gakoa. Izan ere, hizkuntza aniztasunarekiko konpromisoari dagokionez, Europar Batasuneko erakundeetan, hobeto gaude gaur 2013ko irailaren 11 aurretik baino. Alabaina, Ebazpen hori onartzeak ez du bermatzen Europaren hizkuntza aniztasunak babes eta sustapen eraginkorra izango dituenik etorkizunean. Aukera handiagoak ditugu aurrerantz jarraitzeko, baina ez dira ezabatu atzera egiteko arriskuak. Oso meharra baita hizkuntza aniztasunaren aurrerabideari eusten dion haria. Beraz, horretan dago momentuko koska: "aukera-arrisku" binomio hori aukeraren alderantz eramatean.

Horretarako beharrezkoa ikusten dut, lehenik, Ebazpenak irailaren 11n Europako Parlamentuan lortu zuen babes eta kontsentsu zabala mantentzea (gogoratu 645 boto izan zirela alde Parlamentuan, boto guztien % 92, Europako erakundeetan hizkuntzen auzian sekula izan den boto kopururik altuena); eta mantendu ez ezik, kontsentsu hori Europako gainerako erakundeetara zabaltzea, oso bereziki Europako Batzordera eta Kontseilura. Bigarrenik, behar-beharrezkoa dela uste dut, aipatu adostasun zabal hori baliatuz, diskurtso berri bat eraikitzea Europan: diskurtso bateratua eta eraginkorra, hizkuntza aniztasunaren aurrean maizegi entzuten ditugun sasi-liberalismoak gainditzeko eta Europaren aniztasunarekiko konpromiso aktiboa hauspotzeko baliagarria izango dena.

Beraz, bi elementu horiek azpimarratuko nituzke etorkizun hurbilerako ezinbesteko tresna gisa:



eragile politiko europarren arteko adostasun zabala eta Europako erakundeentzako diskurtso berri bat.

Irailaren 11ko Ebazpenean finkaturik geratu dira diskurtso hori hezurmamitzeko garrantzitsuak diren hainbat kontzeptu. Besteak beste honako hauek: bat, hizkuntza aniztasunaren hedadura Estatu hizkuntzetatik haragokoa dela onartzea; bi, hizkuntzak, ikuspegi etnizista eta sinbolikotik hartu beharrean, ekitatean oinarrituriko Europa kohesionatuago bat eraikitzeke tresna legez hartzea; hiru, hizkuntzen dimentsio kulturala ez ezik, dimentsio soziala eta ekonomikoa ere azpimarratzea; lau, “Estatu bat – hizkuntza bat” ekuazio hegemonista eta eskluientea gainditzea; bost, iraunkortasunaren printzipioa (sostenibilitatea) bere egitea; sei, hizkuntzen bizi-indarra bermatzeko nahitaezkoak diren faktoreen artean nabarmentzea familia bidezko transmisioa, hezkuntza, hedabideak, IKTak, arteak eta administrazioa; eta, azkenik, beste bi elementu, etorkizunean oso eraginkorrak izan litezkeenak: alde batetik, Europako Eremu Urriko Hizkuntzen Agiria berretsi dezaten eskatzea oraindik berretsi ez duten Europar Batasuneko estatuei; eta, bestetik, Europako Batzordeari eta Kontseiluari eskatzea neurri eta politika zehatzak har ditzatela, biziraupena arriskuan duten hizkuntzen eta hizkuntza aniztasunaren mesedean.

Nire ustez, funtsezkoa da diskurtsoa, diskurtsoan sakontzea. Behar dugu diskurtso bat, unibertsalismoaren garapenerako globalizazioak dituen arriskuak agerian jarriko dituen. Globalizazioa saihestezina da, noski, eta baditu, nola ez, aukera ederrak hizkuntza aniztasunarentzat. Baina baditu arriskuak ere: esaterako, jakobinismoaren sinonimo bihurtzearen arriskua. Hizkuntza aniztasuna ez da helburu bat, errealitatea bera baizik. Baina ezin gauza bera esan hizkuntza aniztasunaren iraunkortasunaz (sostenibilitateaz, alegia), hori bai baita helburu bat, iraunkortasuna ez dago-eta bermatuta. Horregatik defenditzen dugu diskurtso ahalik eta partekatuena eraikitzea, hizkuntza aniztasuna kudeatzeko politika europarrak legitimatuko dituen diskurtso sendoa eta atzeraezina.

## **PARADIGMA HEGEMONIAZALEA VS HIZKUNTZA ANIZTASUN IRAUNKORRAREN PARADIGMA**

Zibilizazioaren ispilu izan da Europa azken mendeetan, baina ez arlo guztietan. Hizkuntzen

auzian, adibidez, berdintasunaren ideala -ideal desiragarria dena, inondik ere-, hizkuntza batzuei beste batzuen gainetik hegemonia emanez eraiki nahi izan du. Praktikan, horren gihar-hezurak gaur oraindik indartsu dira European. Paradoxikoki, hizkuntza aniztasunaren defentsan landu diren zenbait ekimenetan ere, oraindik agerian jartzen da herritar elebakararren ideia, “estatu bat – hizkuntza bat” paradigmatik eratorria. Esate baterako, 2002an Bartzelonan Kontseiluak Europako hezkuntzari begira onarturiko 1+2 formularen ageri da ideia hori: hain zuzen ere, abiaburuan lehen hizkuntza (ama hizkuntza edo etxekoa, horrela ere izendatua) jartzen da, hala da hori, baina lehen hizkuntza hori estatu hizkuntzarekin identifikatzen da (1+2 horretan Europako Batzordearen buruan “1” ez da euskara; “1” da gaztelania edo frantsesa). Euskaldun guztiek dakite gaztelania edo frantsesa, bretoi edo korsikar guztiek frantsesa, edo galestar guztiek ingelesa. Paradigma hegemoniazalearen lekuan hizkuntza aniztasun iraunkorraren paradigma balego, formula hori, seguruenik, 1+2 izan beharrean, 2+2 izango litzateke. Kontua da, European hain errotua den “Estatu bat – hizkuntza bat” paradigma zaharkitua egiazki gainditu eta hizkuntza aniztasunaren defentsa eta kudeaketa iraunkorrak izan beharko lukeela Europa zaharberriaren ikur, uniformetasunari bizkarra emanez eta ezberdinen arteko aukera-berdintasuna besarkatuz.

Europaren etorkizunaz kezka eta zalantza ugari dauden momentua da oraingo hau, krisialdi ekonomiko nahiz sozial eta impasse politiko sakoneko unea bizi dugu. Europako erakundearen eta herritarren arteko etena areagotu egin da. Baina Europak ez du atzera-itzulirik. Eta egungo impassea gainditzeko, Europa sendoago, integratuago eta “europarrago” bat da gehienek proposatzen dutena. Ni ere horretan nago, “Europa gehiago” behar dugula, alegia, egungo nora eza eta ezinegona gainditzeko. Alde horretatik, Europa “gehiago”, Europa “europarrago” eraikitzeke momentu hau aukera bikaina da “narratiba edo errelato europar berria” eraikitzeke, une egokia da hizkuntza europar guztiei behar besteko tokia egiteko, une egokia adierazpen erretorikoetatik harago neurri zehatzen esparrura iristeko. Lau haizetara zabaldu behar dugu Europa ez dela soilik ekonomia; batasun ekonomikoa eta politikoa ez ezik, Europa batez ere kultura eta hizkuntza aniztasuna dela, Europa balio sozial eta etiko jakin batzuk partekatzen dituen eremua dela, eta, hain zuzen ere, aniztasun hori ondare propiotzat onartzea dela

biderik seguruena Europa sendoagoa eraikitzeko, erakundeen eta herritarren arteko gaurko etendura murrizteko.

Europak ispilu eta erreferente izaten jarraitu nahi badu, erreferente izan beharko du hizkuntzen auzian ere. Bistan da -eta pozgarria da- gero eta sentsibilitate handiagoa errotzen ari dela Europako erakundeetan. Horren lekuko dira Lisboako Tratatuak, Funtsezko Eskubideen Karta edo Europako Eremu Urriko Hizkuntzen Karta. Horren lekuko da 2013ko irailaren 11n Europako Parlamentuak onartutako Ebazpena. Etorkezunari baikortasunez begiratzeko arrazoi sendoak dira horiek guztiak. Europar agenda politikoa bere lekua egiten ari baita hizkuntzen auzia.

## EUSKARA ETA BESTE HIZKUNTZA ERTAIN EZ HEGEMONIKOEN OFIZIALTASUNA JOMUGAN

Europaren iruditeria kolektibo berrian ezin da hizkuntza bat bakarria izan protagonista, ingelesa esate baterako; ezin dira, ezta ere, hizkuntza protagonistak ingelesa, frantsesa, alemana, gaztelania eta italiarra soilik izan; eta ezin dira, ezta ere, hizkuntza protagonista bakarrak Europar Batasuneko 24 hizkuntza ofizialak izan.

Europaren iruditeria kolektiboak bere baitan eta bere-beretzat onartu behar ditu eremu europar ezberdinetan zabalduz dauden hizkuntzak; 70etik gora dira. Eta epe ertainera begira jarrita, estatu-hizkuntza ez izanda ere, Europako eskualderen batean edo eremu juridiko-administratiboren batean ofizialak diren hizkuntza guztiak behar dute Europar Batasuneko erakundeetan aitormen ofiziala. Europaren ikuspegi inklusibo eta integratzaile batetik begiraturik, ulergaitza da Europako erakundeetan oraindik ofizialak ez izatea Europako eremu juridiko-administratibo azpiestataltako hezkuntza sistema osoan, unibertsitatean edo administrazioan ofizialak diren hizkuntzak; hedabideetan nahiz Interneten zenbait estatu-hizkuntzak baino indar

Euskararen auzia, edo katalanarena, edo galegoarena, edo korsikerarena, edo bretoierarena, edo frisierarena, edo galesarena, ez dira soilik auzi (edo "arazo") lokalak, ez dira soilik Estatu bakoitzaren etxe barruko arazoak, ez dira Espainia edo Frantziaren arazo hutsak: hori guztia ez ezik, gainera, auzi edo "arazo" europarrak dira

handiagoa duten hizkuntzak; milioika europarrek ohikotasunez erabiltzen dituzten hizkuntzak; legeak egin eta legeria garatzeko legebiltzar propioak eta gobernugintzarako aginte exekutibo propioak dituzten eremu juridiko-administratiboetan ofizialak diren hizkuntzak: Espainiaren kasuan, katalana, galegoa eta euskara. Maila ertaineko hizkuntza horiek, beren "erru" edo "gabezia" bakarria Estatu hizkuntzak ez izatea duten horiek, aitormen ofizial normalizatua behar dute Europako erakundeetan, europar ondare ez ezik komunikazio hizkuntzat hartuak izatea eta babestea.

Euskararen auzia, edo katalanarena, edo galegoarena, edo korsikerarena, edo bretoierarena, edo frisierarena, edo galesarena, ez dira soilik auzi (edo "arazo") lokalak, ez dira soilik Estatu bakoitzaren etxe barruko arazoak, ez dira Espainia edo Frantziaren arazo hutsak: hori guztia ez ezik, gainera, auzi edo "arazo" europarrak dira. Europako erakundeetan sustraituta dagoen ikusmoldea, ordea, bestela-

koa da: hizkuntza horien guztien auziak onenean ere "estatu auzia" direla kontsideratzen da, ez "auzi europarra", eta, logika berean, Estatuetan ere auzi horiek "estatu auzizat" ez baizik eta "auzi autonomikotzat" jotzen dira, hizkuntza horiei dagozkien lurralde eta erkidego autonomoetako auzizat alegia. Espainian, esaterako, bere muga guztiakin bada ere, hizkuntza aniztasunaren aldekoagoa eta

eraginkorragoa da Konstituzioa, Espainiako erakundeek garatzen duten hizkuntza politika baino. Espainiako erakundeen jarrera nagusia oso urrun eta atzean geratu da Konstituziotik. Nahiz eta Europako Eremu Urriko Hizkuntzen Karta berretsia izan, Espainiak ez dauka Konstituzioak aitorturiko "beste hizkuntzak" -alegia, euskara, katalana eta galegoa- praktikan errespetatu eta babesteko estatuko hizkuntza politikarik, ez baitu garatu Konstituzioaren 3.3. artikulua. Defizita, nabarmena da.

Testuinguru horretan, galde diezaiozun geure buruari zein edo zer den hizkuntza-aniztasunaren iraunkortasunaren etsaia. Etsaia, hizkuntza globalen espantsionismoa da, espantsionismo gehienak be-



zala suntsitzailea edo baztertzailea izan litekeena. Badira hizkuntza unibertsal komun bakarraren aldekoak, eta badira justu kontrakoak, norberaren erkidegoaren hizkuntza propioarentzat gotorleku isolatua proposatzen dutenak. Ez bata eta ez bestea ez ditut ikusten, ez zuzen eta ez bideragarri. Hizkuntzak komunikazio-kode hutsa baino gehiago direlako da beharrezko aniztasun linguistikoa babestu eta sustatzea; eta, aldi berean, mundu zabaleko gizakion arteko harreman kultural, sozial, akademiko eta ekonomikoetarako da onuragarria elkarren arteko komunikazio-hizkuntza orokorrak izatea. Kontua ez da, inola ere, hizkuntza hegemonikoak ordezkatzeko: hori gutxienez ameskeria hutsa litzateke. Kontua da hizkuntza hegemonikoekin batera iraunkortasunez bizitzea, eta horrek eskatzen du tokian tokiko hizkuntzei ere komunikazio-hizkuntza normalizatu legez dagozkien funtzioak eta esparruak bermatzea. Globalizazioa eta europartasuna tokikotasunetik bizitzea da kontua, ukatu gabe globalizazioa eta europar esparrua, ez eta europarron tokikotasunak. Ikuspegi horretatik uste izatekoa da gero eta garrantzi handiagoa izango duela hizkuntzen arteko erlazioak; baina ez bakarrik euskara edo katalana bezalako hizkuntzen kasuan, baizik eta, baita ere, beren lurraldeko hegemonian lasai-lasai sentitu diren estatu hizkuntzen kasuan. Europako estatu hizkuntza ia guztiak ditut gogoan (gaztelania barne) hori diodanean. Horregatik uste dut dela beharrezkoa berehala aipatuko dudana Europako Hizkuntzen Mapa Funtzionala.

Europako erakundeek eragile aktiboak izan beharko lukete hizkuntza aniztasuna babesterakoan. Izan ere, European dauzkagun eskualdeko edo eremu urriko hainbat hizkuntza biziberritze prozesuetan murgilduta daude, hiztunek hala nahi dutelako, hori delako hiztunen borondatea eta erabaki demokratikoa. Prozesu horiek Europak bere egitea eta babestea exijentzia etikoa, politikoa eta demokratikoa da, bere buruarekiko exijentzia, hain zuzen ere. Ekitatea ez baita denak berdin tratatzea; ekitateak eskatzen du, hain zuzen ere, beharra duen hartan inbertitzea.

Oso eskura datorkigu behinola Joshua Fishman-ek esandakoa, Xabier Erizek egin zion el-karrizketa batean. Fishmanek honakoa zioen: “Mehatxupean dauden hizkuntzentzat ez dakite zein bide hartu (...) Eurak bezain laster ibiltzeko gauza bagara, orduan salbu gaude. Lehen arazoa, ordea: ezin duzu eurak bezain laster ibili”. Bi ondorio atera ditzakegu hitz horietatik. Lehen ondorioa da, ameskeria dela uste izatea hizkuntza hegemonikoak ordezkatu daitezkeela; hortaz, haien artean bizitzen ikasi behar da, “iraungipenik gabeko txikiak” izaten ikasi behar dugu. Eta, bestetik, “ezin dugunez eurak bezain laster ibili”, behar beste ibiltzeko laguntza eta

elkartasuna behar dugu, bestela ezin izango baitugu behar besteko tokirik aurkitu gure hizkuntzentzat. Mitxelenak bikain asko laburbildu zuen ideia kopiatzen ari naiz: “Gure herriak herri artean bere tokia behar duen bezala, hizkuntzak ere berea aurkitu behar du hizkuntza artean: handikeriazko menturarik gabe, iraupena eta hazkuntza segurtatzeko behar adinako tokia.”

Alegia, maximalismorik

gabe, baina iraunkortasuna (sostenibilitatea) bermatzeko behar besteko tokia.

## EUROPAR HIZKUNTZA POLITIKA PROPIO BATERAKO ZENBAIT OINARRI

Giza eskubideetan eta gizarte-ongizatean Europa aitzindaria da mundu osorako. Utopia ote da Europa munduan aitzindari izatea hizkuntza aniztasunaren kudeaketan ere? Ez dut uste. Baina, hartarako europar hizkuntza politika propio bat beharko luke makulu, Estatuaren gaineratik Europako erakundeek berea izango duten hizkuntza politika sustatzaile bat, hainbat esparrutan Estatuak ere bultzatuko dituen hizkuntza aniztasunaren iraunkortasuna bermatzeko neurriak hartuz.

Nire iritzian, gisa horretako hizkuntza politikarantz urratsak egiteko bidea irekitzen du Europako Parlamentuak joan zen irailean onarturiko Ebazpenak. Badira urte batzuk argitaratu nituela horrelako

Europako erakundeek eragile aktiboak izan beharko lukete hizkuntza aniztasuna babesterakoan. Izan ere, European dauzkagun eskualdeko edo eremu urriko hainbat hizkuntza biziberritze prozesuetan murgilduta daude, hiztunek hala nahi dutelako, hori delako hiztunen borondatea eta erabaki demokratikoa



hizkuntza politika batek garatu beharko lituzkeen elementuak. Horietako batzuk aletzera noa jarraian. Elementu horien artean hauek nabarmenduko nituzke:

- Lehenik, hasieran esan bezala, eragile politiko europarren arteko kontsentsu zabala, eta hizkuntza aniztasunaren garapen iraunkorrerako diskurtso berritu eta sendoa.
- Bigarren, Europako Estatuetakoa lurralderen batean ofizialtasuna aitortua duten hizkuntzek ofizial izan beharko lukete Europar Batasunean.
- Hirugarren, etorkinen hizkuntzek ere begirunea behar dute.
- Laugarren, Europar Hizkuntzen Mapa Funtzionala osatu beharko litzateke, Europar Batasuneko kide diren estatuetakoa administrazioetan, hezkuntza sistemetan eta hedabideetan hizkuntza aniztasuna bermatzeko, batetik, eta Europako erakundeetako hizkuntza erabilerak finkatzeko, bestetik. Mapa hori tresna baliagarria izan liteke finkatzeko zeintzuk diren Europako erakundeetan ingelesaren funtzioak, zeintzuk gainerako estatu hizkuntzenak, zeintzuk gaur oraindik ofizialak ez diren baina hala izan beharko luketen beste hizkuntzenak, zertan bereizten diren testuinguru horretan lan hizkuntza eta zerbitzu hizkuntza, eta abar. Hizkuntza ofizialak dozenaka izateak ez baitu nahitaez esan nahi egiten den guztia hizkuntza ofizial guztietara itzuli behar denik, ezta gutxiagorik ere. Europar erakundearen eguneroko funtzionamenduari eraginkortasunarekin bat letorkeen moduan finkatu beharko lirateke hizkuntza ofizialen erabilerak lan hizkuntza eta zerbitzu hizkuntza gisa, biok nahitaez ondo bereiziz. Eraginkorra ez dena ez baita egingarri eta bideragarri, eta egingarri edo bideragarri ez dena antzua baita aurrerabiderako, nahiz eta oso baliozkoa izan frustrazioak eragiteko. Ameskeriak ez, baizik eta amets txiki egingarriak beharko dira Europako Parlamentuan diren hango eta hemengo indar ezberdinen arteko aliantzak egituratzeko.
- Bosgarren, Hizkuntza Eskubideen Europar Agiria onartzea.
- Seigarren, Europar Batasuneko Estatu kideek, nahitaez, kide izateko, Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Ituna onartzea beharrezko izanik, zuzendu beharko litzateke kide zenbaitek Kar-

ta oraindik onartu gabe izateak erakusten duen anomalia.

- Zazpigarren, hizkuntza aniztasunaren eta hizkuntza berdinkidetasunaren aldeko pedagogia soziala lideratu beharko luke Europar Batasunak.
- Zortzigarren, Europako eremuren batean ofizialak diren hizkuntzak (ez bakarrik estatu hizkuntzak) ikasteko aukerak eman beharko litzaizkieke europar herritarrei, hezkuntza-sisteman, unibertsitatean eta bizialdi osoko ikaskuntzaren sisteman.
- Bederatzigarren, Europako eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzek komunikazio esparru funtsezkoak diren Interneten eta IKTetan presentzia normalizatua izateko estrategia iraunkor bat diseinatu beharko luke Europar Batasunak, bultzada ekonomiko sendoa emanez.
- Hamargarren, lan harremanetan eta kontsumoaren arloan, eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzen erabilera sustatzeko gutxieneko neurriak aurrekusi beharko lituzke europar hizkuntza politikak.
- Eta, azkenik, Eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzetan sorturiko literatur lanak Europako beste hizkuntzetara itzuli eta eza-gutzerara emateko neurri eraginkorrak finkatu beharko lituzke europar hizkuntza politikak. Umberto Eco idazleak behinola esan bezala, "itzulpena baita Europako hizkuntza".

Arriskuak hor daude eta etorkizuna ez dago bermatuta. Baina etorkizun iraunkorra eraikitzeak aukera gehiago daukagu gaur. Beraz, esku bete lan daukagu Europa integratu eta anizkoitzaren proiektuan sinesten dugunok. Aukera eta aurrerapausoen artean ez nuke aipatu eta aitortu gabe utzi nahi 2014ko udaberrian amaitu zen legealdiaren azken txanpan 2 eurodiputatu euskaldunek (Izaskun Bilbao eta Iñaki Irazabalbeitia) eta 5 eurodiputatu katalanek elkar hartuta abiarazi zuten ekimena, Europako Batzordeak hizkuntzaren arteko diskriminaziorik eza bermatzeko aldera orain arteko zenbait direktiba aldatzea edota helburu hori izango duen direktiba berri bat onartzea proposatuz. Espero eta desio dut 2014ko maiatzaz gero eraturiko Europako Parlamentuak, eta haren ondoren osaturiko Europako Batzordeak, eta, oro har, Europako erakunde nagusiek agintaldi berriaren erreferentziatzeko abiapuntua izatea 2013ko irailaren 11ko Alfonsi Ebazpena, eta ez jarraipenik gabeko helmuga. Abiapuntua bai, ez ordea helmuga.